


## Nola jakin dezaket nire Microsoft Office 32 edo 64 bitekoa den?

Xuxenen bi bertsio daude: [32 bit \(x86\)](#) edo [64 bit \(x64\)](#). Ordenagailuan instalatuta daukagun Microsoft Officeren bertsioaren arabera aukeratu beharko dugu instalatzailea. Horretarako, ezinbestekoa da jakitea gure Microsoft Office aplikazioa 32 bit edo 64 bitekoa den.

Office 2013, 2016, 2019 eta 365

Joan “Fitxategia > Kontua” atalera, eta klikatu “Honi buruz: Word” jartzen duen tokian. Hor jarriko du 32 edo 64 bitekoa den:



Office 2010

Joan “Fitxategia > Laguntza” atalera, eta hor jarriko du 32 edo 64 bitekoa den:



## Office 2007

Ez dago Office 2007rako 64 biteko bertsiorik. Beraz, Office 2007 beti da 32 bitekoa.

Behin zein instalatzaile jaitsi dakigunean, nahikoa izango da dagokion estekaren gainean klik egin eta gure ordenagailura jaistea. Ondoren, fitxategiaren gainean klik bikoitza egin, eta Xuxen zuzentzailearen instalazioa martxan hasiko da.